



## **Haurtzaroarentzako eta Gaztaroarentzako Arte Eszenikoen Nazioarteko Eguna ASSITEJ-en kanpaina bat da, honako mezua sustatu eta zabaltzeko: “haur bat antzokira eraman, gaur” #takeachildtothetheatretoday.**

### **Sue Giles Nazioarteko ASSITEJE-ren presidentearen mezua aurtengo Egunerako:**

ASSITEJentzat urteko gertaera garrantzizkoenetakoa da Haurtzaroarentzat eta Gaztaroarentzako Arte Eszenikoen Eguna, eta horrenbestez pertsona oro bultzatu nahi ditu “haur bat antzokira eramatera, gaur”. Izan ere, helduen arduetako bat da beren inguruko haur eta gazteei ahalik eta esperientzia artistiko gehien eskaintzea.

Haur bat antzokira eramatea berriro ere zuzeneko ikuskizunekin konekatzea da; ideia eta emozioekin, pertsonen arteko loturekin, bat egitea. Era berean, hurrek eta gazteek artea eta kultura eskura izateko duten eskubidea defendatzea da, askatasunez espresatzekoa. Haurrei eta gazteei arreta eskaintzea oso garrantzitsua bada, are eta inportanteagoa haiei entzutea eta haien bilakaera beharrak ontzat ematea.

ASSITEJ-eko Manifestuak dioten bezala, uste dugu askoz ere gehiago egin behar dela herrialde guztiek NBERen Haurren Eskubideen 13 eta 31 artikuluek ezarritako obligazioak bete ditzaten.

Hori bereziki garrantzitsua da egungo pandemia testuingurua, hainbeste herrialdetan gertatzen ari diren gatazkek eragindako krisia eta haur gutiak

Hori bereziki garrantzitsua da egungo testuingurua aintzat hartzen bada: pandemia, munduko hainbeste herrialdetan gertatzen ari diren gatazkek eragindako krisia, eta ekitate eta berdintasun premia larria haur guztiak mundu jasangarri, seguru eta oparoan bizi daitezen. Arteak eta kulturak gure haur eta gazteentzako (eta gure haur eta gazteekin) eratu nahi dugun mundua imajinatzeko aukera ematen digute. Beraz, funtsezkoak zaizkigu gure jendarteentzako baldintza hobek bermatzeko ekintzak abiatzeko.

Orain, antzerkia eta zuzeneko arte eszenekoak inoiz baino beharrezkoagoak dira irudimenak beldurra garaitu dezakeela berresteko. Momentu honetan mundu osoan haur eta gazteentzako arte eszenikoetan ari diren artisten adore eta konbikzioak ekarpen handia egin dezake ume eta gazte horientzako liberazio, katarsi eta alaitasun adierazpen espazio bat sortzeko. Sormen jario argi eta ausartaren lekuko izan gara, konpromiso itzelarena. Geure kide guztiek erakutsitakoa medio jabetzen gara, haur txikientzat zein gazte helduentzat. antzerkia eta ikuskizunak egiten segitzeko erabakimena ez dela galdu. Indartu egin den komunitate bat gara.

Haur eta gazteek sozializazio, konfidantza eta itxaropenik ezaren kolpea jaso dute, buru osasunean kalte sakona eragin dien kolpea. Edonon sumatzen du arazo honi kasu egiteko beharra. Gure publiko gazte horrek inoiz baino gehiago behar ditu artea, kultura, antzerkia, espektakulua; hots, aukerak, ikuspuntu zabalagoak, dibertsioa eta harridura, edertasuna eta hunkidura ematen dituzten ezinbesteko esperientziak, ezinezkoa egingarri bihurtzen dutenak. Azken batean, mundu kaotiko honi zentzua ematen dioten esperientziak eta humanoon arteko loturak oroitarazten dizkigutenak.

Haurtzaro eta gaztaroarentzako Arte Eszenikoen Nazioarteko Eguna helduak bultzatu nahi ditu, “haur bat antzokira eramatera, gaur”, edonon dela ere: kalean, eraikin batean, pantailan, euren logelatan, irrati edo liburuen bidez, jolas eta antzezpenaren bidez, sormen eta produkzioaren bidez. Gu bertan egongo gara, daukagun guztiarekin, aspaldi honetan hain urria izan den magia sortzeko.

**Sue Giles**  
**Nazioarteko ASSITEJ-eko presidentea**